



## ENPLEGUA SUSTATZEKO TOKIKO EKINTZAK ABIAN JARTZEKO DEIALDIAREN OINARRI ARAUTZAILEAK

Lehena. Deialdiaren xedea.

Deialdi honen xede da hamasei pertsona kontratatzea "Auzoko Laguntzaileak" "E-Leioa Bidean" eta "Leioa Berpiztu" izeneko proiektuak aurrera eramateko, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuak ematen dituen tokiko enplegua sustatzeko ekintzetarako diru-laguntzen deialdiaren markoan, 2015eko martxoaren 25eko ebazpen bidez argitaratua.

Bigarrena. Kontratazioaren baldintzak

Oinarri hauen bidez, aldi baterako langileak kontratatzeko hautaketa prozesua arautzen da, honako lanpostu hauek baldintza hauetan bete ditzaten:

Programa: Auzoko Laguntzaileak

Lanpostua	Programaren koordinatzailea
Kontratu kop.	1
Kontratu eredua	Obra edo zerbitzuko aldi baterako kontratua
Kontratuaren iraupena	6 hilabete
Jardunaldi mota:	%85

Lanpostua	Auzoko Laguntzaileak
Kontratu kop.	6
Kontratu eredua	Obra edo zerbitzuko aldi baterako kontratua
Kontratuaren iraupena	6 hilabete
Jardunaldi mota:	%87,50

Programa: e-Leioa Bidean

Lanpostua	Informatika garatzailea
Kontratu kop.	1
Kontratu eredua	Obra edo zerbitzuko aldi baterako kontratua
Kontratuaren iraupena	6 hilabete
Jardunaldi mota:	%85

Programa: Leioa Berpiztu

<b>Lanpostua</b>	<b>Lonjen mapa egiteko teknikaria</b>
Kontratu kop.	1
Kontratu eredia	Obra edo zerbitzuko aldi baterako kontratua
Kontratuaren iraupena	3 hilabete
Jardunaldi mota:	%50

<b>Lanpostua</b>	<b>Enpresen aholkularitzarako teknikaria</b>
Kontratu kop.	1
Kontratu eredia	Obra edo zerbitzuko aldi baterako kontratua
Kontratuaren iraupena	6 hilabete
Jardunaldi mota:	%85

<b>Lanpostua</b>	<b>Obra koordinatzailea</b>
Kontratu kop.	1
Kontratu eredia	Obra edo zerbitzuko aldi baterako kontratua
Kontratuaren iraupena	6 hilabete
Jardunaldi mota:	%65

<b>Lanpostua</b>	<b>Igeltseroa</b>
Kontratu kop.	1
Kontratu eredia	Obra edo zerbitzuko aldi baterako kontratua
Kontratuaren iraupena	6 hilabete
Jardunaldi mota:	%72,50

<b>Lanpostua</b>	<b>Pintorea</b>
Kontratu kop.	1
Kontratu eredia	Obra edo zerbitzuko aldi baterako kontratua
Kontratuaren iraupena	6 hilabete
Jardunaldi mota:	%72,50

<b>Lanpostua</b>	<b>Elektrikaria</b>
Kontratu kop.	1
Kontratu eredia	Obra edo zerbitzuko aldi baterako kontratua
Kontratuaren iraupena	6 hilabete
Jardunaldi mota:	%72,50

Lanpostua	Obra laguntzailea
Kontratu kop.	2
Kontratu eredia	Obra edo zerbitzuko aldi baterako kontratua
Kontratuaren iraupena	6 hilabete
Jardunaldi mota:	%80

Bigarrena. Funtzioak

Lanpostuen oinarriko funtzioak hauek dira:

**Programa: Auzoko Laguntzaileak**

Lanpostua: programaren koordinatzailea

- Kontratu aldiari zehar garatu beharreko jarduerak eta lanak planifikatzea.
- Zerbitzuan esku hartzen duten auzoko laguntzaileen taldea koordinatzea.
- Kontratu aldiari zehar garatutako jardueren jarraipena eta ebaluazioa egitea.
- Gertakariak jaso, antolatu eta koordinatzea, jasotako gertakariak kudeatzea dagokien udal sailera tramitatuz.

Lanpostua: Auzoko Laguntzaileak

- Bitartekaritza herritarrekin errazteko administrazioarekiko komunikazioa.
- Hondakinak kontrolatzeko neurri, bide zirkulazio arduratsu eta animaliak edukitzeari buruzko araudiaz informatzea herritarrei eta sentsibilizazio lana egitea.
- Herritarren kezak, iradokizunak eta abar jaso eta kudeatzea.

**Programa: e-Leioa Bidean**

Lanpostua: Informatika garatzailea

- e- Leioa Bidean-eko banaketa zerbitzua kudeatzeko web-ataria garatu.
- Intranet bat eta Extranet bat informatizatu.
- Erabiltzaileei tresna digitalei buruzko prestakuntza eman, baita trebakuntza ere.

**Programa: Leioa Berpiztu**

Lanpostua: Lonjen mapa egiteko teknikaria

- Saltokietara bisitak egin.
- kontaktu, kokaleku, tamaina eta abarrei buruzko informazioa eskuratu.
- Hutsik dauden lonjak dinamizatzeko programan parte hartzeko baimena lortu.
- Datu basea egin jasotako informazioarekin.

Lanpostua: Enpresen aholkularitzarako teknikaria

- Aukeren diagnostikoari buruzko inkesta diseinatu eta bete.
- Antzeman diren hobetu beharreko alorretan, aholkularitza plan indibidualak egin.
- Aurkeztutako eskaerak batu, ebatzi eta birbanatu.

Lanpostua: Obra koordinatzailea

- Lonja eta lokaletan egin beharreko lanak diseinatu.
- Obran esku hartuko duten gremioak koordinatu.

Lanpostua: Igeltseroa

- Merkataritza-lokalak berri eta birgaitu lokal bakoitzari ezarritako diseinuaren arabera.

Lanpostua: Pintorea

- Merkataritza-lokalak pintatu lokal bakoitzari ezarritako diseinuaren arabera.

Lanpostua: Elektrikaria

- Merkataritza-lokalen instalazio elektrikoa egokitu lokal bakoitzari ezarritako diseinuaren arabera.

Lanpostua: Obra laguntzailea

- Merkataritza establezimenduetako egokitzapen lanetan lagundu igeltsero, pintore eta elektrikariari.

Hirugarrena. Hautagaien baldintzak.

Onartua izateko, eta hala badagokio, hautaketa prozesuan parte hartzeko, honako hauek izango dira hautagai guztiak nahitaez bete beharreko baldintzak:

- a) Europar Batasuneko herrialderen bateko nazionalitatea izatea edo, Europar Batasunak egindako eta Espainiako Estatuak berretsitako Nazioarteko itunei jarraiki, langileen zirkulazio librea aplikatzen diren lurreko nazionalitatea izatea.

Europar Batasuneko estatuak herritarren ezkontideek ere hartu ahal izango dute parte, baldin eta legeak ez badaude; era berean hartu ahal izango dute parte euren ondorengoek eta haien ezkontidearenek, betiere, ezkontideak legeak ez badaude, ondorengo horiek hogeita bat (21) urtetik beherakoak badaude, adin hori gainditu arren, gurasoen kontura bizi badaude.

Europar Batasunetik kanpoko atzerritar nazionalitatea edukiz gero, bizileku-baimena eta lan-baimena izan behar ditu Espainian.

- b) Lanpostuaren berezko egitekoak normaltasunez betetzeko oztopo den gaixotasun edo akats fisikorik edota psikikorik ez izatea. Dena dela, minusbaliatuen gizarte integrazioari buruzko 13/1982 Legeak ezarritakoa ere bete beharko da.
- c) Diziplina espediente bidez Administrazio Publikoaren zerbitzuetatik bazterturik ez egotea, eta funtzio publikorako ezgaitua ez egotea.
- d) Hautatuta gertatuz gero, Euskal Autonomia Erkidegoan Herri Jardunean Aritzeagatik Batera ezintasunei buruzko 32/1983 Legeak, abenduaren 20koak, eta hori garatzen duen legediak batera ezinezkotzat jotzen duen jarduerarik ez burutzea kargua hartzen duen egunean.
- e) Langabezian egotea eta Lanbiden inskribatuta egotea.
- f) Honako talderen baten barruan egotea:
  - Diru-sarrerak bermatzeko Errenta jasotzea
  - 35 urte edo gutxiago izatea
  - 45 urtetik gorako langabetua izatea (lan eskatzaile gisa inskribatuta, gutxienez, 6 hilabetez)
  - 55 urte baino gehiago izatea
  - iraupen luzeko langabetuak
  - gizarte bazterketa arriskuan daudenak, horren barruan egoera hauek sartzen direlarik: hemezortzi urtetik hogeita hamarrera bitarteko gazteak, adingabeak babesten dituzten erakundeetatik datozenak; droga-mendekotasun edo alkoholismo arazoak dauzkaten pertsonak, hain zuzen ere errehabilitatzen edo gizarteratzen ari direnak; baldintzapeko askatasuneko egoeran dauden pertsonak eta preso ohiak, baita espetxean egonik, beren espetxe-egoeratik enplegu bat eskura dezaketenean eta beren lan-harremana uztailaren 6ko 782/2001 Errege Dekretuaren 1. artikuluan araututako lan-harreman bereziaren

aplikazio-eremuaren barruan ez duten presoak ere; zaintzapeko askatasuneko egoeran dauden pertsonak eta preso ohiak, bai eta preso adingabeak ere, adingabeen zigorerantzukizuna arautzen duen urtarrilaren 12ko 5/2000 Lege Organikoaren aplikazio-eremuan daudenak, eta beren egoeratik enplegu bat eskura dezaketenak, eta beren lan-harremana uztailaren 30eko 1774/2004 Errege Dekretuak onartutako 5/2000 Lege Organikoaren Erregelamenduaren 53.4 artikulua adierazten duen lan-harreman berezian aplikazio-eremuaren barruan ez dutenak; Euskadiko Autonomia Erkidegoko agintari eskudunek baimendutako urgentziako bizitoki-zentroetan ibili diren pertsonak; desgaituak; familia ardurak dituzten emakumeak, hau da, beren ardurapean ezkontidea edota 26 urtetik beherako seme-alabak dituztenak, edo nagusi desgaituak, edo adingabeak hartuta; eta genero indarkeriaren biktima diren emakumeak.

- g) Hautagaien aurreselekzioa egin ondoren, eta 2015eko martxoaren 25eko ebazpen bidez argitaratutako Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuak ematen dituen tokiko enplegua sustatzeko ekintzetarako diru-laguntzen deialdiak ezarritako baldintzen arabera, lanpostuen %30 gorde beharko dira Diru-sarrerak Bermatzeko Errenta jasotzen dutenentzat, %40 emakumeentzat, eta %15 55 urtetik gorakoentzat.

Jarraian doazen lanpostuetarako, nahitaezko baldintza bereziak honako hauek dira:

**Programa: Auzoko Laguntzaileak**

Lanpostua: programaren koordinatzailea

- Titulazio akademikoa: gradu erdiko lanbide heziketa

**Programa: e-Leioa Bidean**

Lanpostua: Informatika garatzailea

- Titulazio akademikoa: goi-mailako lanbide heziketa informatika eta komunikazioen alorrean.

**Programa: Leioa Berpiztu**

Lanpostua: Lonjen mapa egiteko teknikaria

- Titulazio akademikoa: gradu erdiko lanbide heziketa administrazio-kudeaketan.

Lanpostua: Enpresen Aholkularitzarako teknikaria

- Titulazio akademikoa: gradu erdiko lanbide heziketa administrazio eta kudeaketan.

Lanpostua: Obra koordinatzailea

- Barnealdeak dekoratzeko prestakuntza ziurtatua.
- Gutxienez, 12 hilabeteko esperientzia obrak koordinatzen.

Lanpostua: Igeltseroa

- Gutxienez, 12 hilabeteko esperientzia 2. mailako ofizial igeltsero lanetan.

Lanpostua: Pintorea

- Gutxienez, 12 hilabeteko esperientzia 2. mailako ofizial pintore lanetan.

Lanpostua: Elektrikaria

- Gutxienez, 12 hilabeteko esperientzia 2. mailako ofizial elektrikari lanetan

Lanpostua: Obra laguntzailea

- Gutxienez, 12 hilabeteko esperientzia obra laguntzaile lanetan.

Laugarrena. Hautagaiak onartzea.

Oinarriak onartuta, LANBIDE-Euskal Enplegu Zerbitzuari eskatuko zaio datuak bidaltzea, ezarritako baldintzak egiaztatzeko.

Hautaketa prozesuari buruzko proben deialdiak eta Kalifikazio-epaimahaiaren iragarki eta jakinarazpen guztiak Udaletxeko iragarki-oholean argitaratuko dira, baita udal web orrian ere ([www.leioa.eu](http://www.leioa.eu)).

Bosgarrena. Kalifikazio Epaimahaia.

Kalifikazio Epaimahaiaren osaketa Udaletxeko iragarki taulan eta udal web orrian argitaratuko da onartutako behin-behineko zerrendarekin batera eta espezialitate-irizpideei erantzungo die. Epaimahaikideak Udalaren mende dauden langile funtzionarioen artean izendatuko dira.

Kalifikazio Epaimahaia ezin izango da osatu bere partaideen erdia baino gehiago bertaratu ezean, eta beti egon beharko dute bertan Lehendakariak eta Idazkariak. Erabakiak botoen gehiengoz hartuko dira eta, berdinketa gertatuz gero, Lehendakariaren lekuan diharduenak erabakiko du.

Komenigarria iritziz gero, Kalifikazio Epaimahaiak probetan lantzen diren gaietan adituak direnen laguntza eska dezake.

Epaimahaikideek ezin izango dute esku hartu, eta hala jakinaraziko diote Presidenteari; hautagaiek ezetsi egin ahal izango dituzte epaimahaikideak, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen Legearen 28. eta 29. artikuluetan ezarritakoaren arabera.

Epaimahaiak arau hauek ezartzerakoan sor daitezkeen zalantza guztiak ebatziko ditu, baita aurreikusi ez diren gaietan zer egin behar den ere.

Seigarrena. Hautatzeko prozedura.

Hautaketa prozesuak fase bakarra izango du, Lehiaketa Fasea. Kalifikazio-epaimahaiak egingo du hautaketa Lanbidek bidalitako hautagaien artean.

A) Lehiaketa Fasea:

Epaimahaiak honako aspektu hauek balioetsiko ditu programa bakoitzak dituen lanpostu desberdinen arabera. Horretarako, aintzat hartuko ditu ezaugarri sozioekonomiko jakin batzuk eta lan-merituak, Lanbidek bidalitako Curriculum Vitae guztietan eta hautagaiek bidalitako dokumentazioan jasoak, merituen egiaztatze eta irizpide sozioekonomikoen atalean zehazten den bezala.

**Balioetsiko diren irizpide sozioekonomikoak:**

- Deialdian ezartzen den arabera, ehuneko jakin bat kontratatzea eskatzen den kolektibo batekoa izatea: Diru-sarrerak bermatzeko Errenta jasotzea, emakumea, edo 55 urtetik gorakoa: 4 puntu kolektibo baten barne egotearen, eta gehienez, 12 puntu.
- Aurretik, enplegu programetan parte hartu ez izana: 25 punturekin balioztatuko da udal honek sustatutako enplegu planetan parte hartu ez izana, eta 10 puntu bost urte baino gehiago igaro badira.
- Adingabeak ardurapean: ardurapean duen 26 urtetik beherako seme-alaba edo nagusi desgaitu bakoitzeko puntu bat emango da. Lau puntu gehienez.
- Diru-sarrerak Bermatzeko Errenta ez diren beste prestazio batzuk kobratzea: 9 puntu prestaziorik jasotzen ez bada, 4 puntu langabeziagatik subsidioa kobratzen bada eta puntu bat langabeziagatik prestazioa kobratzen bada.

Epaimahaiak honako aspektu hauek balioetsiko ditu, programa bakoitzeko lanpostu espezifikoaren arabera:

**Programa: Auzoko Laguntzaileak**

Lanpostua: Programaren koordinatzailea

**Programa: e-Leioa Bidean**

Lanpostua: Informatika garatzailea

**Programa: Leioa Berpiztu**

Lanpostua: Lonjen mapa egiteko teknikaria

Lanpostua: Enpresen aholkularitzarako teknikaria

- Esperientzia; lanpostuko esperientzia egiaztatua, puntu bat hilabete bakoitzeko. Gehienez, 20 puntu.
- Prestakuntza: lanpostuarekin lotutako prestakuntzan, 10 ordu bakoitzeko puntu 1. Gehienez, 15 puntu.
- Euskara: 5 puntu B-1 maila edo baliokidea, eta 9 puntu B-2 maila edo baliokidetik gora
- Curriculum elkarrizketa: alegatutako merituekin lotuta, horiek egiaztatzeko. Gehienez, 6 puntu.

**Programa: Auzoko Laguntzaileak**

Lanpostua: Auzoko Laguntzaileak

- Esperientzia; lanpostuko esperientzia egiaztatua, puntu bat hilabete bakoitzeko. Gehienez, 30 puntu.
- Prestakuntza: lanpostuarekin lotutako prestakuntzan, 10 ordu bakoitzeko puntu 1. Gehienez, 10 puntu.
- Euskara: 4 puntu B-1 maila edo baliokidetik gora.
- Curriculum elkarrizketa: alegatutako merituekin lotuta, horiek egiaztatzeko. Gehienez, 6 puntu.

**Programa: Leioa Berpiztu**

Lanpostua: Obra koordinatzailea

Lanpostua: Igeltseroa

Lanpostua: Pintorea

Lanpostua: Elektrikaria

Lanpostua: Obra laguntzaileak

- 12 hilabetetik gorako esperientzia; puntu bat hilabete gehigarri bakoitzeko. Gehienez, 30 puntu.
- Prestakuntza: lanpostuarekin lotutako prestakuntzan, 10 ordu bakoitzeko puntu 1. Gehienez, 10 puntu.
- Euskara: 4 puntu B-1 maila edo baliokidetik gora.
- Curriculum elkarrizketa: alegatutako merituekin lotuta, horiek egiaztatzeko. Gehienez, 6 puntu.

Merituak eta irizpide sozioekonomikoak egiaztatzea:

Meritu profesionalak egiaztatu eta balioztatzeko Lanbidek bidalitako Curriculum aintzat hartuko da. Eguneratzerik beharko balu, Behargintza Leioan edo Lanbideren edozein bulegotan egin ahal izango da.

Irizpide sozioekonomikoak egiaztatu eta balioztatzeko honako dokumentazio hau da aintzat hartuko dena:

- Deialdian ezartzen den arabera, ehuneko jakin bat kontratatzea eskatzen den kolektibo batekoa izatea: Diru-sarrerak bermatzeko Errenta jasotzea, emakumea, edo 55 urtetik gorakoa. Datu horiek ofizioz egiaztatuko dira, Lanbidek emandako datuen arabera.
- Aurreko enplegu planetan parte hartu ez izana: ofizioz egiaztatuko da udal artxiboetan.
- Adingabeak bere ardurapean: familia liburua aurkeztuko da.
- Diru-sarrerak Bermatzeko Errenta ez diren prestazioak kobratzea: datu horiek ofizioz egiaztatuko dira Lanbidek emandako datuen arabera.

Zazpigarrena. Ariketak eta merezimenduak kalifikatzea, Epaimahaiaren proposamena eta agiriak aurkeztea.

Deskribatutako lanpostuak betetzeko, hautagai bakoitzak guztira lortuko duen puntuazioa kalkulatu da, hautaketa prozesuaren bi faseetan lortutako puntuazioak batuta.

Puntuazioak batzean berdinketaren bat gertatzen baldin bada, irizpide sozioekonomikoetan punturik gehien lortu duenaren alde egingo da.

Merezimenduen, eta hala badagokio, ariketen kalifikazioa egin ondoren, Epaimahaiak iragarki-oholean argitaratuko ditu hautaketa prozesua gainditu duten hautagaien izenak, betiere, puntu gehien lortu duenetik hasita.

Zortzigarrena. Agiriak aurkeztea.

Epaimahaiaren akta argitaratu ostean, 10 eguneko epean, proposatutako hautagaiak honako agiri hauek aurkeztu beharko ditu:

- a) Medikuaren egiaztageria, proposatutako eginkizunak normaltasunez gauzatzea galaraziko liokeen gaixotasun edo akats fisiko edota psikikorik ez duela adierazten duena. Hautagai elbarriek, aurrekoaz gain, dagozkien funtzioak betetzeko gai direla erakusten duen egiaztageri bat ekarri beharko dute.
- b) Ondokoa ziurtatzen duen zinpeko adierazpena: diziiplina espediente baten bidez edozein Administrazioetik baztertua edo Euskal Autonomia Erkidegoan eginkizun publikoak betetzeko ezgaitua ez dagoela eta abenduaren 20ko 32/1983 Legean, eta hori garatzen duten legeetan, aurreikusten diren bateraezintasun ziorik ez duela.
- c) NANaren eta deialdian eskatutako tituluaren fotokopiak, behar bezala konpultsatuta.

Bederatzigarrena. Kontratazio-proposamena.

Behin eskatutako baldintza guztiak egiaztatu ondoren, Epaimahaiak Alkateari bidaliko dio hautatutako pertsonak kontratatzeko proposamena, prozesua hau arautzen duen laguntzen deialdiarekin ados.

Hamargarrena. Gorabeherak.

Epaimahaiak sortzen diren zalantzak erabakitzeke ahalmena izango du eta, oinarri hauetan aurreikusitakoarekin bat etorriz, Lehiaketa ondo gauza dadin beharrezkoak diren erabakiak har ditzake.

Deialdiaren oinarrien eta Epaimahaiaren jardueraren ondorioz sortzen diren administrazio-egintzen aurka egin ahal izango da, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legean (urtarrilaren 13ko 4/99 Legeak aldatua) eta Administrazioarekiko Auziak Arautzen dituen uztailaren 13ko 29/98 Legean xedaturiko kasuetan eta aurreikusitako era eta epeetan.